

II. INFORMAZIO SISTEMAK

Historia kliniko informatizatuaren erabilera orokortzeak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, informazioa Osabide Globalean integratzeak aukera paregabea eskaintzen dute osasun-informaziorako sistemak hobetzeko. Hori dela eta, biztanleria-mailan zainketa epidemiologikorako beste paradigma bat definitzeko eta eraikitzeko aukera sortu da; ahalmen handikoa da eta datuen analisi banakatuagoa eskaintzeko aukera ematen du.

20. HELBURUA.- Eskura dagoen informazioa denbora errealean aztertzeko aukera emango duen minbizi-erregistroa kudeatzeko eredu definitzea, garatzea eta hedatzea.

Helburua da gaur egungo minbizi-erregistroen —ospitalekoen zein biztanleriakoen— diseinua eta prozedurak egokitzea eta informazio kliniko maneiatzeko sistema berrietara moldatzea. Diseinu berrian, minbiziaren banaketaren deskribapen epidemiologikorako ohiko estatistikez gain, klinikoen, kudeatzaileen eta ikertzaileen premietarako irteera egokiak eskaini behar dira. Informazio eguneratua eskaini beharko da, eta informazioa modu seguruan egongo da eskuragarri tartean dauden alde guztientzat. Informazio generikoaren irteerak beharko dira, baita minbizi motaren arabera eta pazientearen arabera informazio espezifikoen irteerak, betiere modu arinean eta denbora laburrean.

21. HELBURUA.- Paziente bakoitzaren prozesu onkologikoa kudeatzeko aukera emango duen historia kliniko elektronikoan [Osabide] integratuko den aplikazioa definitzea eta garatzea; hartara, prozesuan esku hartzen duten profesionalek eta tumore-batzordeek onkologiako asistentzia-prozesu osoaren informazioa eskuratu ahal izango dute eta pazienteen inguruko erabaki klinikoak optimizatu ahal izango dituzte.

46

Biztanleria-informazioaren analisisiaz harantzago, profesionalen arteko elkarlan handia eskatzen du asistentzia-prozesu onkologikoaren kudeaketa klinikoak; izatez, informazioa partekatzeak aukera emango du erabakiak modu eraginkorragoan eta efizientea goan hartzeko. Ildo horretan, ONKOBIDE ezartzeak eta hedatzeak irtenbide korporatiboa eta integratua emango dio onkologiarako medikazioaren kudeaketari Osakidetzaren ospitale guztietan. Informazio-sistema berri horrek medikazio onkologikoarekin lotzen den asistentzia-prozesu osoa hartzen du aintzat, diagnostikotik tratamenduaren administraziora, barnean direla eskema edo protokolo terapeutikoen definizioa, balidazioa, prestaketa, banaketa eta administrazioa.

21.1. HELBURUA.- Onkologia-pazientearen prozesu farmakoterapeutikorako ONKOBIDE informazio-sistema ezartzea eta hedatzea.

22. HELBURUA.- Prozesu onkologikoaren ezagutzan aurrera egitea, emaitzen ebaluazio-ereduak definitzeko, betiere honako hau ahalbidetuko duten tarteko eta amaierako emaitzetan oinarrituta:

22.1. HELBURUA.- Onkologia-arretaren emaitzen jarraipen eta ebaluazio-ereduan txertatzea pazienteengan eragina duten bizi-kalitatearen eta osasunaren arloko emaitzak.

Gaur egun klinikoek ez dakite gauza handirik tratamenduek pazienteen bizitzan dituzten emaitzei eta ondorioei buruz. Dena dela, adostasun zabala dago pazienteei inportatzaizkien osasunaren arloko emaitzak —*patient reported outcome measures* (PROM)— asistentzia-prozesuen ebaluazioan barnean hartzearen inguruan eta, batik bat, onkologia-arretaren emaitzetan barnean hartzearen inguruan.

Ildo horretan, Euskadiko Onkologia Planak ebaluazio-ereduetan txertatu nahi ditu ICHOM partzuergoaren testuinguruan adostutako estandarrak.

Estandar horiek argi eta garbi jasotzen dituzte tratamenduek eta asistentzia prozesuek pazienteen bizi-kalitatean duten eraginari buruzko ebaluazio-neurri egiaztatutako eta baliozkotuak. Horrenbestez, Osabiden sistema egokiak garatu behar dira pazienteek aukera izan dezaten haien eguneroko bizitzan tratamenduen eraginak erregistratzeko eta klinikoekin partekatuzko, betiere metrika kliniko tradizionalarentzat ikusmolde osagarria eskainiz.

22.2. HELBURUA.- Farmazia-industriarekin elkarrizketan jarduteko esparrua definitzea, pazientearengan lortzen diren emaitzen araberako ordainketa egiteko.

Lehendik aditzera eman den moduan, farmazia-gastuaren gehikuntzaren ondorioz eta onkologia-terapeutikoan etengabe gertatzen ari diren aurrerapen teknologikoen ondorioz, arreta onkologikoa finantzatzeko beste eredu bat behar da, barnean hartuko duena tratamenduek pazienteengan duten emaitzaren kontzeptua. Euskal Autonomia Erkidegoak informazio kliniko elektronikoko sistema bikainak ditu, eta pribilegiozko posizioan dago onkologia-arretaren iraunkortasuna erraztuko duen finantzaketa-eredu bat garatzeko —gauza izango da prozesu terapeutikoari balioa erantsiko dioten medikazioak txertatzeko—.